

**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA
BERRIKUNTZARAKO EUSKAL
KONTSEILUAREN
AKTA**

LEHENDAKARITZA, 2017KO EKAINAREN 28A

BERTARATU DIRENAK:

Iñigo Urkullu jauna

LEHENDAKARIA

Arantza Tapia andrea

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNEKO SAILBURUA

Iñaki Arriola jauna

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUA

Pedro Azpiazu jauna

OGASUN ETA EKONOMIAKO SAILBURUA

Cristina Uriarte andrea

HEZKUNTZAKO SAILBURUA

Jon Darpon jauna

OSASUNEKO SAILBURUA

Markel Olano jauna

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Pilar García de Salazar andrea (Ramiro Gonzalez jaunaren ordezt)

ARABAKO DIPUTATU NAGUSIORDEA

Nekane Balluerka andrea

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Bixente Atxa jauna

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Jose M^a Gibert jauna

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Fernando Cossío jauna

IKERBASQUE-KO PRESIDENTEA

Alberto García Erauzkin jauna

INNOBASQUE-KO PRESIDENTEA

Iñaki San Sebastian jauna (Emiliano Lopez Atxurra jaunaren ordezt)

TECNALIA-ko ZUZENDARI NAGUSIA

Iñaki Aranburu jauna

IK4-ko PRESIDENTEA

Jesús M^a Ugalde jauna

JAKIUNDE-ko PRESIDENTEA

Jorge Unda jauna

SENER-eko ZUZENDARI NAGUSIA

Rosa María Garcia andrea

SIEMENS-GAMESA RENEWABLE ENERGY-ko PRESIDENTEA

Iñigo Ucin jauna

MONDRAGON KORPORAZIOAREN PRESIDENTEA

Jesús Peña jauna
LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA

EZ BERTARATZEKO ARRAZOIA AZALDU DUTENAK

Unai Rementeria jauna
BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA

Ramiro Gonzalez jauna (bere ordez Pilar García de Salazar andrea)
ARABAKO DIPUTATU NAGUSIA

Emiliano López Atxurra jauna (bere ordez Iñaki San Sebastian jauna)
TECNALIA-ko PRESIDENTEA

Francisco Riberas jauna
GESTAMP-eko PRESIDENTEA

1. Kontseiluan sartu diren azken pertsonen ongi etorria ematea.

Lehendakariak bertaratutakoak agurtu ditu, eta ongi etorria eman die legegintzaldi honetako lehen Kontseiluan sartu diren pertsonen ongi etorria: Iñaki Arriola eta Pedro M^a Azpiazu sailburuak; Nekane Valluerca, UPV/EHUko errektore berria den aldetik; Emiliano Lopez Atxurra, Tecnaliaren ordezkaria; eta enpresa-sektorearen aldetik: Jorge Unda, Senerren ordezkaria; Rosa Maria Garcia, Siemens-Gamesaren ordezkaria; Francisco Riberas, Gestampen ordezkaria; eta Iñigo Ucin, Mondragon Korporazio Kooperatiboaren ordezkaria.

Lehendakariak eskatu du aktan ager dadila Kontseiluak esker ona erakutsi nahi diela bertan iragan legegintzaldian parte hartu zutenei: Ricardo Gatzagaetxebarria sailburuari; UPV/EHUko errektore Iñaki Goirizelaiari; baita Javier Ormazabal, Fernando Querejeta, Jose Luis San Pedro, Antón Pradera eta Andrés Arizkorretari ere –hurrenez hurren, Teknalia, Idom, Iberdrola, CIE Automotiv eta CAFen ordezkariak–.

2. Aurreko akta irakurri eta onestea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak onetsi du 2016ko ekainaren 16an egindako azken bileraren akta

3. Bileraren nondik norakoak aurkeztea

Bileraren gai-zerrenda aurkeztu aurretik, Lehendakariak honako hau gogorarazi du:

“Euskadi, 2014tik hona, espezializazio adimentsurako estrategia garatzen ari da lehentasunezko hiru eremutan –fabrikazio aurreratuan, energian eta biozientzia-osasuna binomioan– eta lau aukera-txokotan: elikaduran, ekosistemetan, hiri-habitatean eta sormen eta kultura industrietan.

Estrategia hori garatzeko, 2020ra begira jarrita, Euskadik 11.000 milioi euroko inbertsio publiko-pribatua egiteko konpromisoa hartu du, Europar Berrikuntzaren erreferente izateko”.

“Berrikuntza da gure orainaren arrazoia eta gure etorkizunaren giltza”.

Gogoeta hori egin ondoren, Lehendakariak bileraren gai-zerrenda aurkeztu du eta Jesús Peñari eman dio hitza ZTBP ezartzeko prozesuaren ordura arteko laburpena egiteko.

4. 2020 ZTBP ezartzeko prozesuaren laburpena. 1. eta 2. faseak

Jesús Peñak 2020 ZTBP inplementatzeko egindako jardueren laburpen orokorra aurkeztu du, eta plana 2014ko abenduan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak onetsi zuenetik egindakoa azaldu du. ZTBP bera prestatzeko egindako 0 fasearen balantzea egin du, baita espezializazio adimentsuko RIS 3 estrategia hedatzeko lehen eta bigarren faseena ere.

Nabarmendu du abian jarri zirela Gidatze Taldeak, strategiaren benetako gurgil eragileak. Horrez gain, lortu diren helburu nagusietako batzuk adierazi ditu: gobernu organoak onestea, RIS3ren arloetako bakoitzean lehentasunezko teknologiak ezartzea, eta erreferentziako proiektu eta

ikerketak identifikatzea. Gainera, 30 lantalde espezifiko abiarazi dira, eta aurreikusitako ebaluazio-eta monitorizazio-txostenak egin dira.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen berrantolaketa eta I+G+b-ri laguntzeko programen (Policy Mix) apurkako egokitzapena ere garrantzitsuak izan dira plana egikaritzen ari den lehenengo urte hauetan.

5. 2020 ZTBPren bigarren Ebaluazio Txostena.

Alberto García Erauzkin Innobasque-ko presidentek ZTBPren aurrerapen maila ebaluatzeko bigarren txostenaren ondorio nagusiak aurkeztu ditu.

2020 ZTBPan sei helburu operatibo ezarri ziren: 1) Baliabideak biltzea RIS3 estrategian ezarritako esparruen barruan; 2) Oinarrizko ikerketa eta merkatutik hurbilen dagoen garapen teknologikoa indartzea; 3) Sistema emaitzetara orientatzea; 4) Nazioarteko funts gehiago erakartzea; 5) Enpresa berritzaileen kopurua handitzea eta 6) Ikertzaileen kualifikazioa hobetzea.

Helburu horien jarraipenerako, 12 adierazle aztertu dira. Txostenaren lehenengo ondorioa da helburu operatiboan betetze-maila handia izan dela. 12 adierazleetatik 10etan ikusten da nabarmen egin dela aurrera. Hiru adierazletan –baliabideak RIS 3 esparruetan biltzeari, produktu berrien salmenten ehunekoari eta Europako Horizon 2020 Programatik erakartitako funtsen ehunekoari buruzkoetan, hain zuzen– lortu ere egin dira 2020rako ezarritako helburuak

Baina aitzitik, bi adierazle aipatu dira, nahi bezain azkar betetzen ari ez direnak: 1) garapen teknologiko esperimentala bultzatzea, ikerketaren emaitzak merkatura transferitzeko; eta 2) enpresa berritzaileen kopurua handitzeko beharrezana, bereziki teknologikoak ez diren esparruetan. Hau da, merkaturatzearen arloko berrikuntza eta enpresaburu-antolakundeko sistemen arloko berrikuntza. Oinarrizko bi elementu, Euskadik gaur egun Europan berrikuntzaren polo gisa duen tokia izan dezan aurrerantzean ere.

Ekonomia hizpide hartuta, eta 2015eko ekitaldiari buruz Eustatek emandako azken datu ofizialen arabera, ZTBPren aurreikusitako inbertsioen betetze-maila %92koa da. Finantzaketa publikoan eta nazioarteko finantzaketan aurreikuspenak bete dira. Aldiz, enpresen finantzaketan aurreikuspenen %87,4 soilik lortu da, krisi ekonomikoaren eragina dela-eta. Espero da enpresek I+G arloan egindako inbertsioaren adierazle hori datozen urteetan suspertzea, jada hasi den ekonomiaren susperraldia sendotzen den heinean.

Txostenaren aurkezpenaren ildotik, Jakiunde-ko presidentek iritzi truke bat eragin du euskal unibertsitate-sistemaren bikaintasuna handitzeari eta handitze horrek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema osoa hobetzeko duen eraginari buruz.

6. RIS 3 Gidatze taldeen hedapena.

Arantza Tapia: Fabrikazio aurreratua, Energia, Elikadura.

Hitza hartu du Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuak, Arantza Tapiak, eta bere erantzukizunpeko hiru gidatze taldek –Fabrikazio Aurreratukoak, Energiakoak eta Elikadurakoak, alegia- egindako aurrerapausoak aurkeztu ditu.

A) Fabrikazio aurreratua:

Fabrikazio Aurreratuko Gidatze Taldeak 6 lantalde espezifiko jarri ditu abian. Talde horiek 10 ildo teknologiko garrantzitsuenak identifikatu dituzte, lau arlotan bilduta: A) Material eta prozesu aurreratuak; B) fabrikazio-sistema adimentsu, malgua eta eraginkorrak; C) energia-eraginkortasuna, eta D) Fabrika digital eta konektatua.

Halaber, abian jartzen ari dira zeharkako 9 ekimen estrategiko, euskal industria-sarea 4.0 industria bihur dadila bultzatzeko. Horien artean bereziki nabarmentzen dira honako hauek: Fabrikazio aurreratuan konektatutako aktiboen sarea (Basque digital Innovation hub); offshore ekimen estrategikoa ere, fabrikazio aurreratuaren eta energiaren arteko lankidetzak-ekimen gisa; talentuaren sustapenean zuzenean eragiten duten STEAM ekimenak (STEAM: Science, Technology, Engineering, Arts, Mathematics), hezkuntza eta unibertsitateen sailburuordetzekin eta lanbide-heziketarekin elkarlanean.

Azkenik, adierazi da garrantzitsua dela Euskadi nazioartean agertzea 4.0 industriaren Europako erreferente gisa. Horren erakusgarri nabarmena izan da batera aurkeztea Hannoverreko mundu azokan.

B) Energia

Energiaren esparruan Gidatze Taldeak 8 lantalde espezifiko abiarazi ditu. Lantalde horietan 136 erakundek hartu dute parte. Prozesu horri esker, 7 eremu estrategiko identifikatu dira hiru jardun arlotan: A) Sorkuntza berriztagarria; B) Sare adimentsuak eta C) Kontsumo eraginkorra.

Gainera, 3 integrazio-esparru edo Balio-Kate Berri identifikatu dira: Offshore Energy, Smart grids eta Resource efficient manufacturing.

Halaber, lanean ari gara zeharkako 11 ekimen estrategikotan. Proposamen horien aurrerapen-mailak diferenteak dira gaur egun. Bereziki nabarmentzekoa dira honako hauek: HARSH-LAB plataforma, offshore inguruneko produktuen saiakuntza eta baliozkotze azpiegitura gisa; smart grid-en produktu eta zerbitzuen integrazio digitalerako plataforma; eta saiakuntza aurreratuaren zentroa, "Wind Box", sistema eolikoak baliozkotzeko.

Jarraian, sailburuak energiaren eta fabrikazio aurreratuaren arloen artean sortu diren interes komuneko proiektuak azaldu ditu, eta lau balio-kate berri edo aurkikuntza ekintzaileko espazio berri aipatu ditu: 1) energia-eraginkortasuna; 2) material eta prozesu aurreratuak; 3) fabrikazio-sistema malguak; eta 4) digitalki konektatutako enpresak.

Azkenik, Vanguard ekimena nabarmendu du, Euskadi nazioarteko esparruan kokatzeko funtsezko elementua den aldetik. Euskadi, Eskoziarekin batera, oso aurkako inguruneetako (HARSH environments) manufaktura aurreratuaren taldeko buru da.

C) Elikadura

Elikaduran, gidatze taldeak 6 ildo teknologiko lehenetsi ditu, sektorearen etorkizuneko erronkei aurre egiteko: biztanleria handitzea, zahartzea eta iraunkortasuna, alegia.

Ildo horretan, 3 ekimen estrategiko identifikatu dira: A) Abere-ekoizpena desmedikalizatzea; B) Elikadura osasuntsua: dieta pertsonalizatua eta obesitatea eta diabetesa prebenitzea; eta C) Ekoizpen-prozesuetan IKTak integratzea.

Elikadurako eta osasuneko gidatze taldeen artean sortutako sinergiak nabarmendu dira, horiei esker aukera berriak identifikatzeko lantalde mistoa sortu baita. Talde horrek lanerako lehentasunezko 3 ildo hautatu ditu: 1) Obesitatea, diabetesa eta arrisku kardiobaskularra prebenitzea; 2) Minbizia, gaixotasun kroniko gisa; eta 3) Neurodegenerazioa. Erreferentziako ikerketa-proiektu bat aurkeztu da. Minbizia duten pertsonentzako elikadura garatuko duen proiektu horretan sektoreko balio-kateko 20 erakundek parte hartzen dute.

Azkenik, sailburuak Euskadik nazioartean lortutako lekua nabarmendu du, hain zuzen ere EIT Food buru den Europako 'Food4Future' ekimenean parte hartzearen bidez. 50 enpresa, unibertsitate eta ikerketa-zentrok baino gehiagok osatzen duten partzuergo horrek ekimen aitzindariak eta erreferentziako konponbideak garatuko ditu elikaduraren balio-katearen erronketan.

Horri dagokionez, Jakiunde-ko presidenteak azaldu du egokia litzatekeela zenbait lantaldetan ikusmolde soziologikoa txertatzea gizartean garatzen ari diren berrikuntza-estrategia batzuek duten eraginari buruz.

Jon Darpon: Bio-Osasuna

Jon Darpon sailburuak biozientziak-osasuna Gidatze Taldean abian jarri diren lau lantaldeak aurkeztu ditu: 1) gaixotasun arraroen lantaldea; 2) medikuntza pertsonalizatuko lantaldea; 3) osasun digitalaren eta gailu medikoen lantaldea; eta 4) analitika aurreratuen eta big dataren lantaldea. Horietariko bakoitzean zeharkako aplikazio-eremuak identifikatu dira, eta ekintza-planak ezarri dira ikerketako proiektu eragile berriak mobilizatzeko.

Jarraian, bio-osasunaren arloan bultzatzen ari diren zeharkako lau ekimen estrategikoak aurkeztu ditu: INNOSASUN programa, EROSKETA PUBLIKO BERRITZAILEA, BALIOSASUN programa eta EIP-AHA ekimena, zahartze aktibo eta osasuntsuaren arloan.

Azkenik, osasun arloaren eta elikadura arloaren artean egiten ari diren elkarlan-proiektuak azaldu ditu. Horrez gain, labor aipatu ditu Habic-ekin, ekipamenduaren, egurraren eta diseinuaren klusterrarekin nahiz fabrikazio aurreratuko gidatze taldearekin izandako lehen harremanak, etorkizuneko elkarlan proiektuak batera identifikatzeko.

Iñaki Arriola: Ekosistemak eta hiri-habitata

Ekosistemak

Iñaki Arriola sailburuak Ekosistemen aukera-eremuan egindako aurrerapenak aurkeztu ditu. Eremu horretan, gidatze taldeak lehentasunezko 6 lan-ildo identifikatu ditu, bi ardatz handiri lotuta:

A) Ekonomia Zirkularraren ardatza: 1) Produktu berriak eta negozio berdeagoak; 2) Materialen eta hondakinen balorizazioa; eta 3) Teknologia eta prozesu garbiagoak; eta

B) Ingurumena zaintzearen eta birsortzearen ardatza: 4) Ura, airea, lurzorua: tratamendua eta lehengoratzeko; 5) Klima-aldaketaren egokitzapena eta arintzea; eta 6) Zerbitzu ekosistemikoak.

Ekonomia zirkularrari lotutako A ardatzean hiru laguntza-programa abiarazi dira:

1) *"Proiektu bikainen diseinua"*, Europako programen bitartez finantzatu ahal diren ekosistemen arloko berrikuntza-proiektuak sustatzeko. Horien kostua-eragikortasuna ratioak honako hau ekarri du: Europako finantzaketatik 61 euro lortu dira inbertitutako euro publiko bakoitzeko.

2) “*Eko-berrikuntzako proiektuak*”; euskal enpresen partaidetza zuten proiektu eragileen 7 eskariri lagundu zitzaizen horren bitartez.

3) “*Frogaketa-proiektuak*”; ikerketaren emaitzak merkatura eramateko 79 eskariri lagundu zitzaizen, eta horrek eragina izan zuen enpresa partaideen fakturazioan eta enpleguan

Bestalde, **Ingurumena zaintzeari eta birsorkuntzari buruzko B ardatzean**, KLIMATEK programa abiarazi da, klima-aldaketara egokitzeko berrikuntzarako eta frogaketarako.

Halaber, sailburuak adierazi du erabaki dela beste ekimen estrategiko bat sortzea. ‘Basque Circular Innovation Factory’ izeneko ekimen horrek zaintza estrategikoko, prestakuntza aurreratuko eta proiektu berritzaileen garapeneko jarduerak egingo ditu. Ekimen hori funtsezkoa izango da ekonomia zirkularraren esparruan industria-proiektu eragile berriak identifikatu eta abiarazteko.

Hiri-habitata

Jarraian, hiri-habitataren arloan abiarazi diren 5 lantaldeen aurrerapenak zehaztu ditu: 1) Eraikuntza industrializatua eta modelizazio birtuala; 2) Erabateko zaharberritzea eta hiri birsorkuntza; 3) Hiri, auzo eta eraikin adimendunak; 4) Eraikuntza iraunkorreko material berriak; eta 5) Eraikin eta hiri irisgarriak. Mugikortasuna iraunkorra.

Berrikuntza-funtsaren laguntzaz I+G+b proiektuen deialdia bat atera zen 2016an. Programa horrek Europako deialdietara aurkeztutako 7 proiektu eragin ditu. Horrez gain, laguntza eman zen RIS 3 motako 11 azterlanetarako, H2020ren arloko aukerak identifikatzeko, eta horren emaitza gisa 4 proiektu aurkeztu dira.

Legegintzaldi honetan, Lurralde Plangintzaren Sailburuordetzak bere gain hartuko du hiri-habitataren aukera-eremua koordinatzeko ardura, Etxebizitza Sailburuordetzaren laguntzarekin. Euskadiko Eraikuntza Iraunkorraren *Bultzatu 2025* esparru-programa sustatzeko, RIS 3ren gaur egungo ildo estrategikoak indartuko dira, eta ildo horiek osatuko dira beste lan-ildo batzuekin: lurralde plangintza; birsorkuntza eta azpiegitura berdeak, smart cities eta smart grids.

Arlo horretan, auzoak birsortzeko proiektu estrategiko eragile bat egingo da ikuspegi integral batetik abiatuta. Proiektu horrek kontuan hartuko ditu hainbat aldagai, esate baterako eraikina, osasuna, mugikortasuna, eta abar. Horrez gain, laguntza emango da proiektu eragileak egiteko beste gidatze talde batzuekin konpartitutako intereseko arloetan, adibidez fabrikazio aurreratuan, energian eta biozientziak-osasunean. Azkenik, eraikinak kontsumo ia hutseko irizpideen pean birgaitzeko “nZEB” *ekimen estrategikoa* aterako da. Ekimen hori 3 esperientzia piloturen bitartez garatuko da.

7. Unibertsitateko sistema zientifikoa RIS 3 estrategiarekin lerrokatzea

Cristina Uriarte:

Cristina Uriarte sailburuak sistema zientifikoak hiru arlotan izandako aurrerabidea aurkeztu du: pertsonarik esanguratsuenak identifikatu dira, proiektu eragileak bultzatu dira, eta sistema zientifikoa eta unibertsitate-sistema RIS 3 lehentasunekin lerrokatu da. Azken arlo horren barruan, nabarmentzekoa da bikaintasunaren ikerketako talde kontsolidatuen ezaugarriak zehaztu izana eta Ikerketaren Zuzendaritzako deialdi eta tresnak, Ikerbasque programa eta BERC deialdia orientatzea.

Abian dauden jarduketan bi ardatz nagusiak dira, alde batetik, bikaintasuna bultzatzea sisteman, eta horretarako sistema horren emaitzak hobetzea eta giza kapitala indartzea eta, bestetik, RIS 3 Euskadi estrategiarekin lerrokatzea.

Lehenengo ardatzean honako hau jaso da: argitalpen zientifiko indexatuak gehitzea, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal sistemaren emaitzak hobetzea, eta Ikerbasqueren bitartez talentua erakartzea, bertan lotzea eta aberriratzea.

Bigarren ardatzean Unibertsitatea–Enpresa 2022 euskal estrategia berria aurkeztu da. Estrategia horrek zientzia-ezagutza enpresei transferitzea du helburu, bai eta gaitasun handiko giza kapitala prestatzea ere, enpresen beharrezanetara egokituta.

Estrategia horren barruan, 2022ra arte egin beharreko 15 ekintza jaso dira. Horien artean honako hauek aipatu ahal dira: Fakultateak eta Eskolak Klusterizatzea; Enpresa-Unibertsitatea Ikasgelen Programa; 2019-2022 Unibertsitate Plana prestatzea eta garatzea; eta ekimen ekintzaile berriak sortzea Euskal Unibertsitate Sistemaren eta BERC bikaintasun zentroei lotuta.

Azkenik, Ikerbasque egiten ari den Euskadiko Zientziaren Mapa aurkeztu du. “**Science.eus**” webgunean eraikita dago eta 412 talde zientifikori buruzko informazioa dauka. Ikerketa-taldeei eta aktibo zientifikoen (taldeak eta azpiegiturak) eta RIS 3 Euskadi lehentasunen arteko lerrokadurari buruz informazio gehiago sartzeari aurreikusitako da. Maparen helburua da ikertzaile-taldeen arteko sinergiak gehitzea eta eremu akademikoaren eta enpresa- eta gizarte-ehunaren arteko lotura erraztea.

Bixente Atxa: Mondragon Unibertsitatea

Bixente Atxa errektoreak Mondragon Unibertsitatearen 2017-2020 Plan Estrategikoa aurkeztu du, 4 apustutan oinarrituta: A) Hezkuntza-eredu berritzaile eta diferentziala; B) Nazioartekotzea; C) Ikerketa aplikatuko eredu aintzatzetsia eta D) Ezagutza-adabegia.

Apustu hauei erantzuteko 5 palankatan oinarritzen da: 1) Trebakuntza; 2) Digitalizazioa; 3) Ezagutza; 4) Espezializazioa eta 5) Elkarlana.

Espezializazioari dagokionez, MUK bere baliabideak honako arlo hauetan biltzen ditu funtsean: fabrikazio aurreratuan, energian, bio-medikuntzan, gastronomia-zientzietan eta zerbituzioa.

Jarraian, MUK ZTBPan egindako ekarpena aurkeztu du, unibertsitatearen hiru egitekoen barruan kokatuta (Prestakuntza, Ikerketa eta Transferentzia Teknologikoa).

Goi mailako prestakuntzan, Unibertsitateko eta LHko ikasleen % 50ek RIS 3ekin zerikusia duten ikasketak egiten dituzte. 200 ikertzailek baino gehiagok euren jardueran ZTBPrez espezializazio adimentsuko esparruetan egiten dute. Nabarmentzekoa da MUK Euskal Autonomia Erkidegoko LHko zentroyen Fabrika digital eta konektatuko nodoa koordinatzen parte hartu duela. Hori Basque Industry 4.0ko ekimen estrategikoetako bat da.

Ikerketan eta transferentzian, MU honako arlo hauetan dago espezializatuta: A) Zientzia, teknologia eta materialen eraldaketa prozesuak; B) Produktuaren portaera mekanikoa eta diseinua; C) Sistema txertatuak eta industria-sistemarako sistema adimendunak; D) Industria-diseinu eta -kudeaketako prozesuak eta E) Energia elektrikoa. Nabarmentzen da ikerketaren % 50 baino gehiago enpresek finantzatzen dutela (guztira 235 enpresak).

Amaierako ondorioen artean, errektoreak azpimarratu du Mondragon Unibertsitatea sendo lerrokatuta dagoela RIS 3 estrategiarekin eta elkarlan estuan ari dela euskal industriarekin. Gainera, euren ikerketa- eta transferentzia-jarduerak nazioartean aintzatetsita daudela azpimarratu du.

José M^a Gibert: Deustuko Unibertsitatea

José M^a Gibert errektoreak nabarmendu du Deustuko Unibertsitateak, Deusto 2018 Planaren barruan, bere egiturak eta baliabideak ZTBPreh lehentasun bertikalen eta horizontalen inguruan antolatu dituela. Gainera, Orkestraren eta Deustotech-en egiturak sendotu ditu, lehendik dauden beste egitura batzuk RIS 3rekin lerroka daitezela bultzatu du, eta hainbat espezializazio-esparruren inguruan egitura berriak sortu ditu.

RIS 3rekin lerrokatutako apustuen artean nabarmentzekoa da *biozientziak – osasuna* arloa. Bertan biltzen da Deustuko Unibertsitatearen ikerketa-jardueraren zati handi bat, 3 ildo estrategiko handiren inguruan taldekatuta: 1) Neurozientziak; 2) Hirugarren Adina eta 3) Osasun Kudeaketa. Eraitza nagusien artean nabarmentzekoa da 'Ageing and Wellbeing' diziplinarteko plataforma. 30 ikertzailek baino gehiagok osatzen duten plataforma horrek nazioarteko 7 proiektutan parte hartu du.

Nabarmentzekoa da, halaber, *fabrikazio aurreratuaren* arloa. Arlo horretan ari dira lanean Deusto Ingeniaritza eta DeustoTech, eta garrantzi handikoak dira Deusto Smart Industry estrategia, Industry 4.0 katedra, Big Dataren inguruko Deustodata ekimena eta Deusto FabLab laborategia. Arlo horrek H2020ko nazioarteko 8 proiektutan parte hartzen du.

Beste alde batetik, *energiaren* arloan nabarmentzekoa da DeustoTech Energy taldea sortu izana (Europako 6 proiektutan eta 62 ikerketa-proiektutan parte hartzen du) eta Orkestrako Energia Katedra indartu izana.

Azkenik, Deustuko Unibertsitateak gizarte-berrikuntzaren arloan egiten duen jardueraren balioa agerian jarri du. Jarduera hori Deusto Gizarte Berrikuntza unitateak egiten du. Horrez gain, nabarmendu du ZTBPreh aukera-eremuen inguruan egindako jarduera. Deusto Cities Lab Katedra eta Deusto Be-Creative (sormen- eta kultura-industrien arloan) sortu izana ere aipatu du.

Nekane Valluerca: UPV/EHU

Nekane Valluerca errektoreak azpimarratu du UPV/EHUK Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren duen pisuaren bilakaera positiboa, bai eta UPV/EHUK herriaren industria-garapenean egindako ekarpena ere. Lehentasunezko 3 jarduketa-esparru nabarmendu ditu: a) maila goreneko lankidetzako prestakuntza eta ikerketa; b) nazioarteko dimentsioa, Bordeleko Unibertsitatearekin sinatutako lankidetzak-akordioaren pizgarriarekin eta c) ekintzaitetako estrategia eta dibulgazio zientifikoarekiko konpromisoa.

Errektoreak azaldu duenez, ikerketa-taldeen jarduera RIS 3 estrategiarekin lerrokatuta dago, 6 ezagutza-poloren inguruan taldekatuta: 1) Industria 4.0; 2) Materialak; 3) Itsas energiak; 4) Osasunerako Zientzia eta Teknologia; 5) Elikadura osasuntsua eta 6) Itsasoko eta lurreko ekosistemak.

Eusko Jaurlaritzaren azken bi deialdietan, 78 taldek (723 ikertzaile) 13,5 M€ jaso dituzte 3 lehentasun estrategikoei lotutako arloetan; bestalde, 85 taldek (985 ikertzaile) 13 M€ jaso dituzte lau aukera-eremuei lotutako arloetan.

UPV/EHUK inbertsio estrategikoak egin ditu RIS 3ekin zerikusia duten azpiegituretan; honako hauek dira azpiegitura horiek: 1) Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroa; 2) Nanbiosis, nanomaterialak eta biomaterialak eta sistemak ezaugarritzeko osasuneko azpiegitura zientifiko-teknologiko berezia; 3) Plentziako Itsas Estazioa eta 4) Lasehu, elikagaigintza-sektorerako analisi sentzorialaren laborategia.

Nabarmentzekoa da transferentzia teknologikoko lana. Lan horretan, azken urte eta erdian 16 patente berri sortu dira eta 11 enpresari lizentziak eman zaizkie RIS 3 esparruetan. Gainera, 2016an 15 spin-off berri sortu dira, haietarik 12 espezializazio adimentsuaren esparruei zuzenean lotuta.

Azpimarratu du UPV/EHUK gaur egun ekosistemen pilotaje taldean eta fabrikazio aurreratuko, energiako, osasuneko eta gainerako aukera-eremuetako hainbat lantaldetan duen partaidetzaren balioa. Horren osagarri, hainbat Cluster elkartetan parte hartzen du, eta Jakintza eta Berrikuntza Komunitateetan (KICs) laguntza emateko ahalmena dauka.

Azkenik, errektoreak unibertsitatearen prestakuntza-eskaintza azaldu du, hori ere RIS 3ekin lerrokatuta (63 doktoregoko programa eta 74 master espezializazio adimentsuaren esparruetan).

8. 3. hedapen-fasea. Datozen erronkak. Aurrekontu-egoera.

Lehendakariak hitza eman dio Jesús Peñari, azken horrek azal dezan zein izango den RIS 3 estrategiaren hedapenaren hirugarren fasea, bai eta aurrekontu-egoera berria ere.

Jesús Peñak azaldu duenez, hirugarren faseari esker aurreko faseetan hasitako hedapenarekin aurrera jarraitu ahal da, eta beste sei erronkari erantzun ahal zaie; hona hemen erronka horiek: 1) pilotaje taldeak dinamizatzea; 2) elkarlaneko proiektu eragileak bultzatzea; 3) sistemaren merkatuarekiko hurbiltasuna indartzea; 4) bikaintasuneko oinarritzko ikerketa indartzea RIS 3 arloetan; 5) zientzia eta teknologiako talentua eta bokazioak sustatzea (STEM programa) eta 6) enpresa-berrikuntza eta berrikuntzaren aldeko gizarte-sentsibiltatea handitzea.

Azaldu duenez, xede horrekin, Jaurlaritzak konpromisoa hartu du I+G+b programen aurrekontuak urtean % 5 handitzeko. Hala, oraingo legegintzaldian (2017-2020), Eusko Jaurlaritzak 1.770 milioi euro inbertituko ditu.

Lehendakaria

Bilera amaitu aurretik, Lehendakariak irten behar izan du, eta Kontseiluari planteatu nahi zizkion gogoetak nahiz erabakiak Alberto Garcia Erauzkini entregatu dizkio, bera ordezkatzuz irakur ditzan.

Horri dagokionez, Lehendakariaren azken gogoetak adierazi ditu Innobasqueko presidentek:

“Euskadi berrikuntza-gune bat dela aitortu du berriz ere Europar Batasunak. Berrikuntza-maila handiko eskualde bat izaten jarraitzen dugu; inguratzen gaituen estatuan, berriz, ertaina edo txikia da berrikuntza. Hori Europako beste bi lekutan baino ez da gertatzen: Praga eta Bratislava”

“Honaino iristea herrialde osoaren ahaleginaren isla da, baina iraganeko arrakastek ez dute etorkizuna bermatzen”. “Posizio horri eusteko ahalegin gehigarria egin behar dugu. Eta, hori dela eta,

guztiok, enpresa, agente zientifiko-teknologiko eta administrazio publikoek, berrikuntzaren aldeko apustua berri behar dugu, gure etorkizunaren giltza baita. Ezin dugu etorkizuna galdu”.

“Enpresek, bereziki txikiak eta ertainak, berrikuntzan eginiko inbertsioa areagotzeko, bai produktu berri eta ekoizpen-prozesuetan, bai merkataritza- eta antolaketa-eremuan”.

“Euskadi garatzen ari den berrikuntza-karreran, gauzak hobeto egin behar ditugu, eta gainerakoek baino azkarrago. Hori da gure lehiakortasunaren oinarria.

“Gaur egungo eta biharko enplegua apustu horrek zehaztuko du, apustuan asmatzen dugun kontuan hartuta. Ez dago kalitateko enplegurik berrikuntzarik gabe”, esan du ondorio modura Lehendakariak.

9. Erabakiak

Kontseiluari aurkeztu zaizkio honako erabaki hauek, azter ditzan, eta aho batez onetsi dira:

Lehenengoa: Kontseiluak balorazio positiboa egin du 2020 ZTBPre lehenengo bi faseen garapenari buruz. Nabarmendu du espezializazio adimentsuko RIS 3 Euskadi estrategiaren 7 arloetan abian jarritako pilotaje taldeen hedapen-prozesua. Pilotaje talde horiek bultzatu ditu aurrera egitera RIS 3 arloen artean elkarlaneko proiektu eragileak identifikatzen, bai eta euren jarduerak enpresa txiki eta ertainetara hedatzeko ekimenak garatzera, enpresa-sareak RIS 3 Euskadi strategiako partaide dela senti dezan.

Bigarrena: Espezializazio adimentsuko RIS 3 Euskadi strategiaren ebaluazio eta jarraipeneko bigarren txostena onestea. Txosten hori herritarrei jakinaraziko zaie 2020 ZTBPre web orriaren bidez: <http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/pcti-2020/>.

Kontseiluak adierazi du pozik dagoela helburu operatiboetan lortutako aurrerabidearekin, eta azpimarratu du garapen esperimental eta merkatuarekiko hurbiltasuna indartu behar direla, eta horrez gain enpresen finantzaketa pribatua bultzatu behar dela eta enpresa berritzaileen kopurua handitu behar dela, bereziki berrikuntza ez-teknologikoko arloetan.

Hirugarrena: Jaurlaritza animatzea urtero I+G+b programetan aurrekontua % 5 handitzeko konpromisoa sendotzea eta erakundeen babeseko programak egokitzen jarraitzea, 2020 ZTBPre ezarritako helburuak lortzeko. Bereziki, policy mix-a egokitzeko prozesu horrek aurrera egin beharko luke irizpide hauek oinarri hartuta: sinplifikatzea eta fokalizatzea, elkarlaneko proiektu eragileak sustatzea, eta enpresen inbertsio pribaturako pizgarriak bultzatzea.

Laugarrena: Kontseiluak azaldu du babesa emango duela RIS 3 strategiaren hedapenaren hirugarren fasea abian jartzeko, eta hala, erronka berriei erantzuteko; hona hemen erronka horiek:

- Pilotaje taldeak dinamizatzea.
- Elkarlaneko proiektu eragileak bultzatzea.
- Euskal I+G+b sistemaren eta merkatuaren arteko hurbiltasuna indartzea.

- Bikaintasuneko oinarrizko ikerketa indartzea RIS 3 arloetan.
- Zientzia eta teknologiako talentua eta bokazioak sustatzea.
- Berrikuntzaren aldeko gizarte- eta enpresa-sentsibiltatea handitzea.

Bosgarrena: Euskal gizarteari, eta bereziki enpresa txiki eta ertainei, deialdia egitea berrikuntzaren trenera igo daitezen. Berrikuntza da gure orainaren arrazoia eta gure etorkizunaren giltza.

10. Eskaerak eta galderak.

Puntu honetan, Jesús Peñak azaldu duenez, bileran erabili diren aurkezpenak pendrive batean igorriko zaizkie Kontseiluko kide guztiei.

Aztertzeke beste gairik ez dagoela, 14:00etan bilera amaitu da.

Jesús Peña Martínez

**LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA ETA LEHENDAKARIAREN ORDEZKARIA ZIENTZIA,
TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANERAKO**

(*) Informazioa eskuragarri dago ZTBPre Webgunean: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ztbp-2020/>